



Lectio divina

1. IRAKURGAIA: Zer dio testuak?

2. GOGOETA: Zer dio niretzat/guretzat testuak?

- ✓ Geure beldurra, geure ekaitza zein diren gogoratzera edota ikustera animatzen gaitu Ebanjelioko zati honek. Zeri diot beldurrik handiena neure bizitzan? Zeri edota nori diot beldurra?
- ✓ Beldurra ondorio oso zehatzak ditu bizitzan. Zertako lotzen nau beldurrak? Ohartzen al naiz nire itxaropena lausotzen didala beldurrak?
- ✓ Batzuetan zailtasunek inarrosi, astindu egiten gaituzte. Zerk pizten dit itxaropena zailtasunen aurrean? Zer kentzen dit bakea eta zer galarazten dit Jesus Jaunarekiko konfiantza? Jesusek bizitzan lagun egiten didala benetan uste dut ala nire porrotak eta hutsegiteak bakarrean bizi ditudala iruditzen zait?
- ✓ Jesusek honako ohar hau egiten die ikasleei: «Zergatik hain beldur, sinesmen txikikook». Fidatzen al naiz Jesusez? Zerk eragozten dit neure burua haren eskuetan uztea? Neure sinesmena harrokeriaz bizi al dut, neure indar eta ahalbideetan oinarritua?
- ✓ Nolako garrantzia ematen diot otoitz pertsonalari? Beharrezko al dut neur bizitzan? Zail gertatzen al zait Aitarekin solasean aritzeko tarteren bat izatea?

3. OTOITZA: Testu honetan oinarriturik, zer esango genioke Jainkoari?

Eska dezagun geuretzat, hainbestetan kolpatuak, nekatuak, akituak ikusten baititugu geure buruak. Eska diezaiozun Jaunari lagun diezagula bizitza aurrera eramaten Bera geurekin dugula oharturik eta sekula bakarrik uzten ez gaitula kontuan izanik.

Gauden Jesusen ondoan. Entzun dezagun esaten diguna: «Zergatik hain beldur, sinesmen txikikook?» (Mt 8, 26). «Sinesten dut! Lagundu sinesgabe honi » (Mk 9, 24).

4. KONPROMISOA: Zer sortzen du nigan/gugan testu honek?

Hitzak argi egin digu, baita elkarrekin egin dugun gogoetak eta otoitzak ere; orain pentsa dezadan zein konpromiso hartu nahi dudan. Adibidez, beldurrik handiena zeri diodan ikusten saiatzea, Jesusengan fidatzea ere eragozten didan beldurra; Jesusekiko adiskidetasunean sakontzeak, Berak baretu ditzan nire beldurrak.

JAINKOA
JARTZEN
DUT NIRE
ITXAROPENA

Hitzarekin
topatuz

6. FITXA, Mt 8, 23-27

ZERGATIK
HAIN BELDUR?
EKAITZA BARETU



Donostiako
Gozaindegia
Obispado de
San Sebastián



DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA
DIOCESI DE SAN SEBASTIÁN

URTEURSEMEN
ANIVERSARIO



Mt 8, 23-27

23 Jesus txalupara igo zen eta ikasleek jarraitu egin zioten. 24 Bat-batean, ekaitz gogorra sortu zen aintziran, eta uhinek txalupa ia azpian hartua zuten. Jesus, berriz, lo zegoen. 25 Ikasleek hurbildu eta esnatu egin zuten, esanez:

–Salba gaitzazu, Jauna! Galtzera goaz!

26 Hark esan zien:

–Zergatik zarete hain beldur, sinesmen txikikook?

Eta, zutiturik, haserre egin zien haizeari eta aintzirari, eta dena bare-bare gelditu zen.

27 Ikasleek, harriturik, honela zioten: «Nor ote dugu gizon hau, esana egiten baitiote haizeak eta aintzirak ere?»



Textua ulertzeko

- ✓ Agerian jartzen du ekaitzak zein ahul garen, eta begien aurrean jartzen digu zein hutsal eta arin diren gure segurtasunak, geure agendak, proiektuak, ohiko jarduerak eta lehentasunak erabakitzean. Begien aurrean jartzen digu alde batera utzi genuela, lotan bezala, eusten gaituen kemena, gure bizitzari eta elkarteari indarra ematen diona. Beldurrak lausotu egiten du gure itzaropena.
- ✓ Txalupan doazen ikasleak Mateoren garaiko kristauak dira. Jesusen ikasle egin ondoren, zailtasuna etorri zaie eta hondoratzeko zorian daude. Jesusen jarraibidean maiz azaltzen da ziurtasunik eza, oztopoa; eta ikasleek, sinesmen txikia dutenez, uste ona galtzen dute. Horixe aurpegiatzen die Jesusek. Eta ondoren, berpiztuari dagokion jarrera erakutsiz (zutiturik, dio testuak grekoz, pizturik esateko aditz berbera erabiliz), naturako indarren gain duen ahalmena erakusten die. Horrela ikusarazten die beren artean dutela beti, salbatzeko eta misioan jarraitzeko kemena emanez.
- ✓ Gure bizitzan beldurra hor dugula adierazten digu Ebanjelioak. Arriskuren bat, benetakoa nahiz ustezkoa, oraingoa, gerokoa nahiz iragana, dugula sumatzean sortzen zaigun emozio desatsegina da beldurra. Ondorio oso zehatzak ditu beldurrak gure bizitzan: lotu egiten gaitu, nahasi, atzera eragiten digu, konfiantza galarazten digu, eragina du gure erabakietan... Jainkoarekiko maitasuna ohosten digun lapur maltzurra da. Itzali egiten digu itzaropena.
- ✓ Gogora ditzadan bizitzan izandako ekaitzak: mehatxuak, zalantzak, geroari buruzko kezka, nire aurkako esamesak, kritikari beldurra... Batzuetan, kezka eta beldurrez betetzen zaigu bizitza, eta oso astun bihurtzen, urez betetzen ari zen ikasleen txalupa bezala.

- ✓ Eta Jesus lo. Esperientzia bera eta errealitate bera izanik ere, ikasleak larritu egiten dira eta Jesus lo dago. Berekin dute Jainkoa, baina ez dira ikusteko ez sumatzeko gauza. Hain lotuak utzi baititu beldurrak, ezin dute Jainkoaren presentzia ikusi zailtasunaren erdian.
- ✓ Mateok, bere liburuko beste atal batean (Mt 14, 26-27) dioenez, ikasleak oi-huka hasi ziren Jesus ur gainean ibiltzen ikusi zutenean: Mamua da. Gauza baikorretan ere gauza ezkorak ikustera eraman gaitzake beldurrak. Zenbat sasi-mamu sortzen den gure barruan, gure beldurrak eraginda! Nire konfiantzako dena niretzat mamu bihurtzeraino; horretaraino nahas nazake beldurrak. Ez al zait inoiz iruditu, ekaitzaren erdian, Jesus lo dagoela?
- ✓ Horrelakoetan, Jesusek galdera garrantzitsua egiten digu: «Zergatik hain beldur, sinesmen txikikook?».
- ✓ Jesusek baretu dezake gure barrena. Ahalmena du gure beldurren gain: «Zutiturik, haserre egin zien haizeari eta aintzirari, eta dena bare-bare gelditu zen».
- ✓ Zer egin beldurra menderatzeko? Jainkoaren maitasun-misterioan sartu eta sakondu: «Maitasunean ez dago beldurrarentzat tokirik, baizik eta maitasun beteak kanpora botatzen du beldurra, beldurra zigorra espero duenari baitagokio; beldur dena ez da maitasun betera iritsi. Beraz, maita dezagun, Jainkoak maitatu baikintuen lehenik. «Jainkoa maite dut» esan eta senideari gorroto diena gezurti da; izan ere, ikusten den senidea maite ez duenak ezin du maitatu ikusten ez duen Jainkoa». (1Jn 4, 18-20).
- ✓ Beraz, Jesusen miraria, ekaitza baretzea ez ezik, ikasleek Berarengan konfiantza handiagoa izatea ere bada. Halako mirariaren beharra izan dezaket nik, beldurra alde batera uzteko: beldurra utzi eta konfiantza hartu, bizitzako gorabehera guztietan konfiantza handiagoa izan Jesusengan, eta bizkortu neu-re itzaropena.

